

## Errexalen borroka

HITZ EGITEN duten zuhaitzak. Bai, ba omen dira, bai. Hala diote Michael Pagek eta Robert Ingpenek, 1987an argitaratutako *Encyclopedia of things that never were* (Sekula izan gabeko gauzen entziklopedia) liburuan. Behatzeko, pentsatzeko eta gogoetarako denbora asko dute, eta zenbait zuhaitzek erantzun egiten omen diote maitatuaren leialtasunaz dituen zalantzak argitzeko galdezka hurbiltzen zaion maitaleari.

Lehenengo euskararako hiztegia omen dena egin zuen Nicolao Landuchio idazle italiarrak, 1562an. Bertan garaiko arabar dialektoko hitz bitxiak jaso zituen. Horietako bat da “errexala”. Errexalak “zuhaitza” esan nahi omen du. Ficua errexala (pikondoa, *Ficus carica*), sagarra errexala (sagarrondoa, *Malus x domestica*), castanea errexala (gaztainondoa, *Castanea sativa*) eta abar aipatzen ditu. Zurzuria edo eltzun zuria (*Populus alba*) eta makala edo eltzun beltza (*Populus nigra*) euskaraz “errexal çuria” eta “errexal valça” jasotzen



LÁSZLÓ SZALAI

Makala, *Populus nigra*.

ditu. Horiek izango ote ziren arabarrentzat zuhaitzen eredu edo nagusi? Bizkaitarrentzat zuhaitz guztiak izendatzeko hitza “hazitza” izan zela dioten bezala.

Izan ere, zenbat hitz dugu zuhaitz esateko! Errexala, zuhaitza, arbola, zuhamua, zugatza, zuharz, zugamua, zuharrondoa, zuhagua, zumarra, zuhartxa, zuhain, zuhaintze, zuhantz, zurzai, zugetz, zukoitz, zuhamutze, zunaitz, zuraitz, zurtzai, zuhartz, zuhatz, zugar, zunar, zuharz, zuhartze, zuhatz, xuhartz, zuspil, zuhaixka, zagai, ezkur, eskur...

Zuhaitzaga, zuhaiztegi, zuhatzo, zuhatzu, zuhazti, zugarraga, zugarreta edo zuhaizti, zuhaitz multzo ederrak osatuko zituzten garai batean. Gero izenen borroka, gaurko “zuhaitz” eta “arbola” parera iristeko.

Afrikar esaera batek honela dio: basoan, zuhaitzen adarrak borrokan ari diren artean, sustriak besarkatu egiten dira. Itxuraz, inoiz aurkitu izan da, moztutako zuhaitzen baten ipurdia, motzondoa edo epaitondoa, elikatzeko inolako hostajerik gabe, urtetan eta urtetan bizirik, aldameneko zuhaitzen elkartasunari esker. ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, *Valerianella locusta* sendabelarraren euskarazko izena zein ote den jakin nahian gabiltza. Eskertuko genizuke zure laguntza. Mila esker.

**Pili Otaegi (Larraul)**

Kaixo Pili. *Valerianella locusta*-ri gazteleraz “hierba de los canónigos” eta frantsesez “mâche” deitzen diote, beste izen askoren artean. Belar horren landutako aldaera da gaur egun “canónigo” izen soilaz ezagutzen den entsaladetarako gaia. Galegoz “untxien uraza”, portugesez eta ingelesez “bildotsen uraza”... Euskaraz bi izen aurkitu ditut: ardi-mihia eta soldadu-belarra. Lehena da gehien erabiltzen dena. Lakoizketa handiak



JAVIER MARTIN

1888an idatzi zuen bigarren izena 1793an Nafarroa Garaian sartu ziren soldadu frantziarrei zor zaiela. Haiek ekarri zuten belarra, nonbait, eta Bertiz haranean izen hori geratu. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.